

2018.eko abenduaren 18aren inguruko agiria

«Migrazioa, betidanik izan den gertakaria da. Klima-aldaketa, demografia, ezegonkortasuna, ezberdintasunak gero eta handiagoak dira eta bizimodu hobea izateko nahiek eta lan-merkatuek asetzen ez dituzten beharrek erakusten digute aurrerantzean ere izango dela migrazioa. Nazioarteko lankidetzak eraginkorra izan behar du migrazioaren kudeaketan, irabazien banaketa zabalagoa ziurtatzeko eta interesatu guztien giza eskubideak egokitasunez babesteko.» —
Antonio Guterres, Nazio Batuen Idazkari Nagusia

Abenduaren 18aren inguruko lan-mahaian bildutako erakunde eta pertsonak ('Gentes del mundo' federazioa, Caritas, Itaka, Ellacuria Fundazioa, Oblatak, Leioa Zabalik, Karitate eta Zuzentasunerako Bilboko Elizbarrutiko Ordezkaritza, Nahuati Elkarte, Bidesari, kultura arteko taldeak...)

Nazio Batuek gizon eta emakume migratzaileen nazioarteko egun bezala aldarrikatu duen eguna, egunez egun bizi duguna islatzen digun eguna beren-beregi agertzera eman, aldarrikatu eta bizi nahi dugu.

Hain zuzen ere, hauxe islatzen baitigu:

- Beste batzuekin batera oraingo errealitatearen barruan gaudela eta geroko gizartearen eratzeko dihardugula.
- Hemen eta orain migrazioak kudeatzeko dugun eraren arabera, gai izango garela ala ez, pertsona GUZTIEKIKO eta beren inguruarekiko etorkizun zuzen, solidario eta adeitsu eraikitzeko.
- Begirada integratzaileak sendotu behar ditugula, pertsona guztiek elkar aitortu dezaten.
- Argi eta garbi esan nahi dugula, gaur hemen bizi garenok, non jaiotakoak garen ere, eman eta hartu egiten dugula eta, beraz, ardurakide garela elkarrekin egiten ari garen bide honetan.
- Gizarte eta elkarte eremuak bat egiteko eta bizikide izateko lekuak direla esan behar dugula eta, horregatik, horiek sendotzea, horiei dagokien garrantzia ematea eskatzen dugula.
- Administrazio publikoen erantzukizuna eskatzen dugula, beraiek baitira funtsezko eragileak ekimen abegitsuak, gizarteratze eta laneratzera bultzatzen duten ekimenak, pertsona GUZTIENTZAKO baldintza duinak sortzen dituzten ekimenak, eratzeko eta suspertzeko.
- Euskadin migrazioa ez dela gai berria, arlo horretan egina dugula ibilbidea eta ikasi era egin dugula, baina hainbat erronka dugula aurrez aurre. Eguneroko jarduerak da, eta gizon eta emakume migratzaileok gizarte bezala egin behar dugun baterako eraikuntza horretan gaude eta egon nahi dugu.

Pertsona migratzaileen nazioarteko eguna, ezberdintasuna eta aniztasuna beldurra sortzeko darabilen demagogiari EZ esateko aukera da.

Halaber, dei egiten diegu Errefuxiatu eta Migratzaileei buruzko New Yorkeko Adierazpenean konprometitu diren Estatu Kideei migrazio eta desplazamenduaren inguruko akordioak era antolatuan, arautuan eta baldintza seguruetan bete ditzaten.

Pertsona migratzaileen nazioarteko eguna egunero bizi duguna agertzera emateko aukera da. Erronkak, bideak, beharrak... abegiaren, bizikidetasunaren eta elkartasunaren alde sarean egiten den lana agertzera emateko garaia ere bada.

Gizarte harreragilea, geroa duen gizarte